



Arartekoaren 2014R-357-14 Ebazpena, 2014ko azaroaren 21ekoa. Horren bidez, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Gaietako Sailari gomendatzen zaio Gasteizko Alaba Jeneralaren kaleko 10. zenbakian kokatutako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen bulegoetan pertsona guztietarako sarbide duina eta baldintza berak bermatzeko beharrezkoak diren neurriak har ditzala.

Aurrekariak

1. Eginaren Eginez elkarteak gure esku-hartzea eskatu du Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea kokatuta dagoen eraikinak ekartzen dituen irisgarritasun-arazoak direla-eta.

Kexa-idazkian laburki zehaztu dira elkarteko burua Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Ezinduen Arloko bulegoetara erakunde horrekin sinatutako hitzarmenaren kudeaketarekin lotutako gaiez aritzera joan zenean gertatu ziren inguruabarrak. Zehazki, gutunean honakoa adierazi da:

“El 16 de enero se ha dirigido a las oficinas del área de discapacidad del IFBS para asuntos relativos a la gestión del convenio suscrito entre la entidad que preside y el IFBS. Al ir a acceder al edificio, a las 13:45h, ha sido recriminada, -por la persona encargada de conserjería y a su vez de activar la plataforma de acceso-, siendo interrogada sobre quién le había citado y a dónde se dirigía, mostrando esta persona su enojo, ya que se marchaba a comer a las 14:00h y no garantizaba la salida del edificio.

Asumiendo las dificultades y la discriminación, ha accedido a la quinta planta, gestionando el trámite asociativo, y ha puesto en conocimiento del funcionario la situación, solicitando ayuda para salir del edificio. De esta forma ha abandonado las oficinas del IFBS a las 14:30h por el garaje acompañada por un trabajador.

Esta situación es discriminatoria y atenta contra el mandato de la convención internacional de la ONU sobre los Derechos Humanos de las personas con discapacidad.

Las oficinas del IFBS son tan nuestras como las del funcionario que desempeña las funciones de servicio a la ciudadanía en ellas, por lo que debe garantizarse el acceso autónomo de las personas con diversidad funcional/discapacidad física, de lo que responsabilizamos al IFBS/DFA.

El edificio de General Álava 10 es un edificio de uso público que alberga todo tipo de oficinas y despachos por lo que tanto en cuanto el edificio permanece



abierto la plataforma debe estar operativa, de lo que responsabilizamos a la comunidad de propietarios.” (sic)

2. Hori ikusita, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Gaietako Sailera jo genuen, honakoa esanez:

“Foru diputatu andrea:

Erakunde honetan EGINAREN EGINEZ elkarteak aurkeztutako kexa bat jaso da. Horren bidez, gure esku-hartzea eskatu du Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea kokatuta dagoen eraikinak dituen irisgarritasun-arazoak direla eta.

Horri dagokionez, nabarmendu nahi dugu aipatutako elkarteak 2014ko urtarrilaren 20an foru-erakunde horren aurrean aurkeztu zuten idazkiaren kopia helarazi digula eta orain arte ez dutela idazki horretarako erantzunik jaso.

Inguruabar horietan, eta gaiaren mamiari buruz inolako gogoetarik egin aurretik, gogorazi behar dizut administrazio guztiek herritarrek egindako idazkiei berriazko erantzuna emateko betebeharra dutela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42. artikuluan ezarritakoari jarraiki.

Aipatu dugun idazkiak laburki zehaztu ditu elkarteko burua Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Ezinduen Arloko bulegoetara erakunde horrekin sinatutako hitzarmenaren kudeaketarekin lotutako gaiez aritzera joan zenean gertatu ziren inguruabarrak. Zehazki, gutunean honakoa adierazi da:

- *“El 16 de enero se ha dirigido a las oficinas del área de discapacidad del IFBS para asuntos relativos a la gestión del convenio suscrito entre la entidad que preside y el IFBS.*
- *Al ir a acceder al edificio, a las 13:45h, ha sido recriminada, -por la persona encargada de conserjería y a su vez de activar la plataforma de acceso-, siendo interrogada sobre quién le había citado y a dónde se dirigía, mostrando esta persona su enojo, ya que se marchaba a comer a las 14:00h y no garantizaba la salida del edificio.*
- *Asumiendo las dificultades y la discriminación, ha accedido a la quinta planta, gestionando el trámite asociativo, y ha puesto en conocimiento del funcionario la situación, solicitando ayuda para salir del edificio. De esta forma ha abandonado las oficinas del IFBS a las 14:30h por el garaje acompañada por un trabajador.*
- *Esta situación es discriminatoria y atenta contra el mandato de la convención internacional de la ONU sobre los Derechos Humanos de las personas con discapacidad.*
- *Las oficinas del IFBS son tan nuestras como las del funcionario*



que desempeña las funciones de servicio a la ciudadanía en ellas, por lo que se debe garantizar el acceso autónomo de las personas con diversidad funcional/discapacidad física, de lo que responsabilizamos al IFBS/DFA.

- *El edificio de General Álava 10 es un edificio de uso público que alberga todo tipo de oficinas y despachos por lo que tanto en cuanto el edificio permanece abierto la plataforma debe estar operativa, de lo que responsabilizamos a la comunidad de propietarios.” (sic)*

Horri dagokionez, zehaztu behar da mugikortasun urriko pertsonak ezin direla Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko bulegoetan gainerako herritarren baldintza beretan sartu, funtzionatzeko hirugarren baten menpe dagoen plataforma jasotzaile bat erabili behar baitute. Horregatik, ezgaitasunen bat duten pertsonak, alde batetik, pertsona horren ordutegiaren menpe daude (eta badirudi ordutegi hori ez datorrela bat foru-zerbitzuen funtzionamendu-ordutegiarekin), eta, bestetik, ezin dira inoiz era autonomoan sartu.

Ararteko erakundeak jardun duen urteetan zehar, kexa ugari jaso dira Gasteizko Alaba Jeneralaren kaleko 10. zenbakiko eraikineko bulegoetara sartzeko arazoan ondorioz, bai plataforma jasotzailea ez zebilelako bai, aztertzen ari garen kasuan bezala, jasotzailea abian jartzeko ardua duen pertsona ez zegoelako. Hurrenez hurren, horrek erakunde honetatik zuzendutako hainbat jarduni bide eman die, foru-erakunde hori azaltzen ziren arazoei konponbide bat emateko kasu bakoitzean beharrezkoak ziren neurriak hartzera hertsatze aldera. Hala ere, azpimarratu behar dugu ezgaitasunen bat duten pertsonak GOFeko bulegoetan baldintza beretan sartu ahal izateko behin-betiko konponbide bat aurkitzeko beharra nabarmendu dugula une oro; izan ere, irisgarritasun unibertsaleko irizpideetara egokitu behar dira, eta uste dugu jarrita dagoen plataforma jasotzailea behin- behineko neurritzat jo behar dela. Dena den, denboraren poderioz egiazta daitekeenez, 20 urte igaro ostean ez da aipatutako plataforma ordeztzen duen inolako neurririk hartu, une zehatz batzuetan foru-erakunde horretako arduradunek instalazioak lekualdatzeko aukera aztertu arren.

Ingurune irisgarria eskubideen berdintasunean oinarritutako gizarte bat lortzeko funtsezko euskarri bat da, herritarrei autonomia ematen baitie eta gizarte- eta ekonomia- bizitza erabat aktiboa garatzeko beharrezko baliabideez hornitzen baititu. Era berean, ingurune irisgarria oinarrizkoa da bereizkeriarik gabe bizitzea oinarri duen eta herritar guztiak aintzat hartzen dituen gizarte bat eraikitzeko.

Horregatik, nabarmendu behar dugu administrazioarentzat eskuarki eta zorrotasun handiagoarekin kasu honetan, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko bulegoak baitira, lehentasunezkoa izan behar dela herritar guztiak baldintza beretan erabil dezaketen instalazioak nagusitzea, aukera-berdintasunaren



printzipioa eraginkorra izateko eta ezgaitasunen bat daukaten pertsonen bereizkeriarik ez egiteko helburuarekin.

Honaino adierazitakoa ikusita, irisgarritasun unibertsalaren printzipioak eta arlo horretako administrazioaren jardunek oinarritzat hartu behar dituzten pertsona guztientzako diseinua aintzat hartuta, arren eskatzen dizut 15 eguneko epean foru-erakunde horrek Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen bulegoen irisgarritasun unibertsala bermatze aldera hartuko dituen neurrien inguruko informazioa bidal diezaguzun.

Eskaera hori egin dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 23. artikuluan ezarritakoaren arabera: “eskatzen diren datu, agiri, txosten edo argibide guztiak aurkezteko betebeharra du, lehentasuna emanik eta al bait lasterren”.

Zalantzarik gabe emango diguzun laguntzagatik aldez aurretik eskerrak emanez, begirunez agurtzen zaitut.”

Lehenik eta behin, eta azaldutako inguruabarrak aintzat harturik, zehaztu genuen mugikortasun urriko pertsonak ezin zirela Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde bulegoetan gainerako herritarren baldintza beretan sartu, funtzionatzeko hirugarren baten menpe dagoen plataforma jasotzaile bat erabili behar baitute. Horregatik, ezgaitasunen bat duten pertsonak, alde batetik, pertsona horren ordutegiaren menpe daude (eta badirudi ordutegi hori ez datorrela bat foruzerbitzuen funtzionamendu-ordutegiarekin), eta, bestetik, ezin dira inoiz era autonomoan sartu.

Ararteko erakundeak jardun duen urteetan zehar kexa ugari jaso dira Gasteizko Alaba Jeneralaren kaleko 10. zenbakiko eraikineko bulegoetara sartzeko arazo onduen ondorioz, bai plataforma jasotzailea ez zebilelako, bai jasotzailea abian jartzeko ardua duen pertsona ez zegoelako, aztertzen ari garen kasuan bezala. Hurrenez hurren, horrek erakunde honetatik zuzendutako hainbat jarduketa eragin ditu, foru-erakunde hori kasu bakoitzean beharrezkoak ziren neurriak hartzera hertsatzeko, mahai gainean jarri ziren arazoak konpontzeko helburuarekin.

Halaber, azpimarratu behar dugu ezgaitasunen bat duten pertsonak GOFeko bulegoetara baldintza beretan sartu ahal izateko behin-betiko konponbide bat aurkitzeko beharra nabarmendu dugula une oro; izan ere, irisgarritasun unibertsaleko irizpideetara egokitu behar dira, eta uste dugu jarrita dagoen plataforma jasotzailea behin-behineko neurritzat jo behar dela. Dena den, denboraren poderioz egiazta daitekeen moduan, 20 urte baino gehiago igaro dira eta ez da inolako neurririk hartu plataforma horren orde, nahiz eta zenbait unetan foru-erakunde horretako arduradunek instalazioak lekualdatzeko aukera mahai gainean jarri.



Berrito ere nabarmendu genuen administrazioarentzat eskuarki eta zorroztasun handiagoarekin kasu honetan, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen bulegoak baitira, lehentasunezkoa izan behar dela herritar guztiek baldintza beretan erabil ditzaketen instalazioak nagusitzea, aukera-berdintasunaren printzipioa eraginkorra izateko eta ezgaitasunen bat daukaten pertsonen bereizkeriarik ez egiteko helburuarekin.

Hori dela eta, arlo horretako administrazio-jarduketek aintzat hartu behar dituzten irisgarritasun unibertsalaren printzipioa eta guztiontzako diseinuaren printzipioa kontuan hartuta, aipatutako foru-erakundeak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen bulegorako sarbide unibertsala bermatze aldera hartuko zituen neurrien inguruko txosten bat eskatu genuen.

3. Erakunde honek mahai gainean jarritako kontuei erantzunez, diputatu nagusiorde eta Gizarte Zerbitzuetako foru-diputatuak txosten hau bidali digu:

“...1.- Que las citadas oficinas se hallan ubicadas en un edificio en que se localizan dependencias tanto de otras Administraciones públicas como de particulares. Siendo esto así, cualquier decisión que pudiera querer adoptarse en relación con el mismo debería contar con el consenso del resto de propietarios, no dependiendo exclusivamente de esta Institución la eliminación de las barreras arquitectónicas que presenta.

2.-Que desde hace ya años que, a instancias de este Instituto Foral, se instaló una plataforma elevadora del edificio que permite el acceso al edificio a todas las personas usuarias, con independencia de los problemas de movilidad que pudieran presentar.

El horario de funcionamiento de esa plataforma a la mañana es el mismo que el del servicio de portería del edificio, de 9:00 a 14:00 horas y plenamente coincidente con el de atención al público de nuestras oficinas.

3.-Que el IFBS dispone de oficinas y locales en otros puntos de la ciudad cercanos a la Calle General Álava que no presentan ningún tipo de barreras (Calle Diputación, nº 13 y Centro de Orientación y Valoración en la Calle Manuel Iradier, 27). Se ha comunicado en varias ocasiones a la asociación EGINAREN EGINEZ nuestra plena disposición, como no podía ser de otra manera, a atenderles siempre que sea necesario en tales dependencias, a fin de evitar problemas indeseados por ambas partes.

En cualquier caso, se reiterará por la Dirección-Gerencia del IFBS a todas las áreas la instrucción de no convocar en las oficinas de la calle General Álava a representantes de esta asociación o de hacerlo, en todo caso, en horario tal que permita realizar la entrada y la salida en el intervalo que va de las 9:00 a las 14:00 horas de la mañana.



4.- Que en los últimos años, en diversas ocasiones, se ha intentado encontrar algún inmueble apto para la reubicación y unificación de todas las oficinas del IFBS, que cumpla con varios requisitos, además del de su plena accesibilidad. Hasta el momento, todas las alternativas barajadas han resultado no viables por distintos motivos, aunque continuamos buscando y estudiando ubicaciones que los cumplan..."

Gogoetak

1. Ezgaitasunen bat duten Pertsonen Eskubideei buruzko Hitzarmena 2008ko maiatzaren 3an sartu zen indarrean Espainian. Une horretatik aurrera, Espainiako Konstituzioaren 96. artikulua lehenengo atalean ezarritakoarekin bat etorri, barne-antolamenduaren zati bat da.

Hitzarmenari atxiki zaizkion estatuek konpromisoa hartu dute bertan aitortzen diren eskubideak eraginkor bihurtzeko beharrezkoak diren politikak, legeak eta administrazio-neurriak aplikatzeko. Era berean, ezgaitasunen bat duten pertsonen bereizkeria ekartzen dieten legeak, araudiak, ohiturak eta jardunak indargabetuko dituzte. (4. artikulua).

Zentzu horretan, gogorazi nahi dugu hitzarmenak ezintasunen bat duten pertsonak eskubideen subjektu osoak direla xedatzen duela eta beren eskaera eta beharrei erantzuna eman behar zaiela ezartzen duela, gainontzeko herritarrek dituzten aukera berak eduki ditzaten.

Irisgarritasunaren arloan, horrek esan nahi du hitzarmenak estatuak sarbide-trabak eta -oztopoak identifikatu eta kentzera behartzen dituela, ezgaitasunen bat duten pertsonak beren ingurunera, garraiobideetara, instalazioetara eta zerbitzu publikoetara heldu ahal izateko eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabili ahal izateko. Horrela, hitzarmenaren 9.1. artikulua hauxe ezartzen du:

"A fin de que las personas con discapacidad puedan vivir en forma independiente y participar plenamente en todos los aspectos de la vida, los Estados Partes adoptarán medidas pertinentes para asegurar el acceso de las personas con discapacidad, en igualdad de condiciones con los demás, al entorno físico, el transporte, la información y las comunicaciones, incluidos los sistemas y las tecnologías de la información y las comunicaciones, y a otros servicios e instalaciones abiertos al público o de uso público, tanto en zonas urbanas como rurales. Estas medidas, que incluirán la identificación y eliminación de obstáculos y barreras de acceso, se aplicarán, entre otras cosas, a:

a) Los edificios, las vías públicas, el transporte y otras instalaciones exteriores e interiores como escuelas, viviendas, instalaciones médicas y lugares de trabajo..."



Era berean, adierazi behar dugu Espainiako Konstituzioaren 9.2 artikulua honakoa ezartzen duela: *“Botere publikoei baldintzak bultzatzea dagozkie askatasun eta pertsona baten eta taldea osotzen dutenena benetazko eta eragileak izan daitezzen”*. Konstituzio-manu horretan, berdintasunaren ideiak legearen aurreko tradiziozko berdintasunaren esparru hertsia gainditzen du. Gaur egun ere Konstituzioaren 14. artikuluan jasotzen da, *“bizi-baldintzen berdintasunaren”* esparru zabalagoan eragina izateko asmoz. Printzipio horri esker, hasieratik desberdintasun-egoeran dauden gizarte-sektore jakin batzuek botere publikoek benetako berdintasuna sustatzeko hartzen dituzten neurrien onurak jaso ditzakete.

Horregatik, ezgaitasunen bat duten pertsonen berdintasuna lor dezaten, ondorioztatu behar da eraikitako ingurunerako sarbidea erraztea xede duten neurriak hartu behar direla, besteak beste.

Aukera-berdintasunari, bazterkeriarik ezari eta ezgaitasunen bat duten pertsonen irisgarritasun unibertsalari buruzko abenduaren 2ko 51/2003 Legearen 1. artikulua idazketa berriak (**Araudia Ezgaitasunen bat duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Hitzarmenera egokitzeko** abuztuaren 1eko 26/2011 Legeak aldatuak) zera ezartzen du:

“Esta ley tiene por objeto establecer medidas para garantizar y hacer efectivo el derecho a la igualdad de oportunidades de las personas con discapacidad, conforme a los artículos 9.2, 10, 14 y 49 de la Constitución.

A estos efectos, se entiende por igualdad de oportunidades la ausencia de toda discriminación, directa o indirecta, por motivo de o sobre la base de discapacidad, incluida cualquier distinción, exclusión o restricción que tenga el propósito o el efecto de obstaculizar o dejar sin efecto el reconocimiento, goce o ejercicio en igualdad de condiciones por las personas con discapacidad, de todos los derechos humanos y libertades fundamentales en los ámbitos político, económico, social, cultural, civil o de otro tipo. Asimismo, se entiende por igualdad de oportunidades la adopción de medidas de acción positiva orientadas a evitar o compensar las desventajas de una persona con discapacidad para participar plenamente en la vida política, económica, cultural y social.”

Gure autonomia-erkidegoaren baitan, irisgarritasuna sustatzeko 20/1997 Legeak gure erkidegoko pertsona guztiei ingurune fisikorako eta komunikaziorako irisgarritasuna bermatzeko neurriak jasotzen ditu eta, bereziki, zenbait arazoirengatik mugaren bat duten pertsonen integrazioaren alde egiteko ekintza positiboko neurriak biltzen ditu; izan ere, muga horiek gizarte-desberdintasuneko egoeran jartzen dituzte, eta inguruabar horiek herritar guztiak oinarritzotzat jotzen diren eskubideez gozatzeko funtsezkoak dira.

Legearen 1. artikulua pertsonen bizi-kalitatea hobetzen lagunduko duten laguntza teknikoak sustatzera behartzen ditu botere publikoak, baita honakoa



bermatzera ere: *“hiri-ingurunearen, gune publikoen, eraikinen, garraiobideen eta komunikabideen irisgarritasuna bermatzea, pertsona guztiek eta, batez ere, mugikortasun murriztua, zailtasunak komunikazioan edo muga psikiko zein sensoriala, aldi baterako zein betirako, dituztenek era autonomoan erabil eta goza ditzaten”.*

2. Aplikagarria den arau-esparrua aztertu ondoren, erakunde honen ustez, argi dago tartean dauden herri-administrazioek herritar guztientzat gure udalerrietako hiri-inguruneetan eta eraikinetan irisgarritasuna bermatzen duten erabakiak hartzeko betebeharra dutela. Horrela, halako konponbide unibertsalak hartuz, leku batetik bestera joateko zailtasun gehien dituzten mugikortasun urriko pertsonen bizi-baldintzak hobetzen laguntzen da eta pertsona horiek bereizkeriarik ez jasateko daukaten eskubidea betetzen da.

Hala eta guztiz ere, aztertzen ari garen kasuan, Eginaren Eginez elkarteko presidentearen inguruabarrak aintzat harturik egiaztatu den moduan, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen sartu nahi duten mugikortasun urriko pertsonak plataforma jasotzailea abiarazi behar duen pertsonaren ordutegiaren menpe daude; beraz, ezin dira modu autonomoan sartu.

Ararteko erakundeak jardun duen urteetan zehar kexa ugari jaso dira Gasteizko Alaba Jeneralaren kaleko 10. zenbakiko eraikineko bulegoetara sartzeko arazoan ondorioz, bai plataforma jasotzailea ez zebilelako, bai jasotzailea abian jartzeko ardua duen pertsona ez zegoelako, aztertzen ari garen kasuan bezala.

Horrela, gogoratzen gara mugikortasun urriko zenbait pertsonak kexak aurkeztu zituztela ezin izan zirelako sartu foru-erakundeak eskaini zizkien lan-elkarrizketak egitera edo Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak, bestela ezin izan daitekeen bezala, herritarrei eskaintzen dizkien beste kudeaketa batzuk formalizatzen.

Arabako diputatu nagusiorde eta Gizarte Zerbitzuetako foru-diputatuak bidalitako txostenean, nabarmendu du behin baino gehiagotan Eginaren Eginez elkarteari jakinarazi dietela erakundeak hiriko beste toki batzuetan dituen bulego eta lokaletan arretea emateko erabat prest daudela.

Horri dagokionez, esan nahi dugu gutxienez ukaezina dela kasuan kasuko sinatutako hitzarmenei buruzko gaiak jorrazera joan behar duten Arabako lurraldeko gainerako elkarteek erakundearen bulegoetara sartzeko daukaten eskubide berbera daukala elkarte horrek. Halaber, eztaba daezina da aniztasun funtzionala duten pertsonen Arabako elkarteko arduradunek ez ezik ezgaitasunen bat duten hainbat pertsonak ere bulego horietara banaka joan behar dutela dagozkien kudeaketak egitera, administrazio horretatik herritar guztiei ematen zaizkien gizarte zerbitzuen arabera. Foru-erakundeak elkarteari beste bulego batzuetan arretea ematea iradoki duenez, badirudi ez dagoela ziur instalatutako plataforma ezgaitasunen bat duten pertsonen sarbide egokia berma diezaiekeen. Herritar guztiak baldintza beretan sartu ezin izatea agerian jartzen du egitate hori.



3. Erakunde honek une oro nabarmendu du irisgarritasun unibertsalaren irizpideak betetzen dituen behin betiko irtenbide bat ezarri behar dela, eta adierazi du haren iritziz plataforma jasotzailea, nolnahi ere, behin-behineko neurritzat jo behar dela. Plataformak ez ditu indarrean dagoen araudian ezarritako erabilgarritasun-parametroak betetzen. Dena den, egia da zerbitzu publiko bat ematen duten bulegoak direla; are gehiago, Gizarte Ongizaterako Erakundearen bulegoak dira. Hori dela-eta, administrazioak ahalegin handiagoa egin beharko zuen instalazio berri batean eskatutako parametroetara heltzeko, gure autonomia-esparruan irisgarritasuna sustatzeko 20/1997 Legeak eta apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuak (hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituenak) xedatzen dituzten irisgarritasun-irizpideekin bat etorritz.

Dena den, denboraren poderioz egiazta daitekeen moduan, 20 urte baino gehiago igaro dira eta ez da inolako neurririk hartu plataforma horren ordez. Zenbait unetan foru-erakundeko arduradunek instalazioak lekualdatzeko aukera mahai gainean jarri dute, baina argi dago ez dela egin.

4. Ingurune irisgarria eskubide-berdintasunean oinarritutako gizarte bat lortzeko funtsezko euskarri bat da, herritarrei autonomia ematen baitie eta gizarte- eta ekonomia-bizitza erabat aktiboa garatzeko beharrezko baliabideez hornitzen baititu. Era berean, ingurune irisgarria oinarritzakoa da bereizkeriarik eza oinarri duen eta herritar guztiak aintzat hartzen dituen gizarte bat eraikitzeko.

Horregatik guztiagatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11 b) artikuluan xedatutakoari jarraiki, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Gaietako Sailari honako gomendio hau egiten zaio:

GOMENDIOA

Gasteizko Alaba jeneralaren kaleko 10. zenbakian kokatutako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen bulegoetan pertsona guztientzako sarbide duina eta baldintza berak bermatzeko beharrezkoak diren neurriak har dadila, modu horretan herri-administrazioen jarduketa guztietan arlo horretan nagusi izan behar duten irisgarritasun unibertsalaren eta guztiontzako diseinuaren printzipioak beteko baitira. Eta hori egin ezin bada, bulego horiek aipatutako printzipioak betetzen dituen eraikin batera lekualda dadila.